

Bero-beroan

ONINTZA IRURETA AZKUNE

82 haur ezingo dira euskaraz matrikulatu

IRUÑEKO ALDE ZAHARREAN Haur Eskola bakarra dago, eta 58 ume-
rentzako tokia dauka. Alde Zaha-
rrean Haur Eskola Euskaraz! plata-
formak, iaz bezala aurten ere, bere
kabuz matrikulazio kanpaina egin
du eta auzoko gurasoei galdetu die
ea datorren ikasturtean haurrak eus-
karazko Haur Eskolan matrikulatu-
ko lituzketen. Iaz 70 haurren izen-
abizenak lortu zituzten eta aurten
82renak. Zerrenda Iruñeko Udalera
bidali dute. Izan ere, Alde Zaharre-
ko Haur Eskola bakarra gaztelaniaz
aritzen da. Egoera aldatzen ez bada

umeak euskaraz matrikulatu nahi
dituzten gurasoek inguruko auzoe-
tara jo beharko dute euskarazko ere-
dua duten haur eskolak aurkitzeko.

“Hirinet.net”
sortu dute Gasteizen

“GEU GASTEIZ” ALDIZKARIAK
2009an itxi zituen ateak eta Geu
Gasteiz euskara elkarteak sumatzen
zuen bazegoela gasteiztar euskaldu-
nak nolabait biltzeko beharra.
Hutsune horri erantzuteko asmoz
sortu dute *Hirinet.net* webgunea.
Informazioa eta entretenimendua
jorratuko dituzte eta herritarren
partaidetza funtsezkoa izango da.

Bestalde, apirilaren 21ean Gas-
teizko euskalgintzako hainbat elkar-
tek antolatuta *Euskaraz bizitzera
goaz!* eguna egin zuten. Kalejira,
kantu emanaldia eta mintzodromoa
izan zituzten, besteak beste, eta eus-
kararen ofizialtasuna aldarrikatu
zuten.

BAHEA

Bea Sallaberryk *Han eta hemen blo-
gean* esanak: “Iparraldeko hainbat
egitura publikotan Erakunde Publi-
koaren politika eramateko euskara
teknikariak sartu zirenetik gauza
frango aldatu dira.

Azken hilabeteetan, hainbat aitzia-
namendu egon dira, seguraski anto-
laketa eta ikusmolde berri bati zor
zaizkionak. Aipamena merezi luke-
tenak anitz dira baina bereziki badi-
ra bi: bai Biarritzeko Herriko
Etxeak, bai Hego Lapurdiko Herri
Elkargoak onartu, egituratu eta
martxan eman dituzten euskararen
erabilera planak. Uste dut egitura
publikoetan lehen aldia dela horrela
deitzen direla. Lehen deitzen ziren
euskararen aldeko neurri edo hiz-
kuntz politika, nik dakita, baina pla-
naren itxurarengatik oinarritzko
punduak zituzten eta izena nehon-
dik ere. Seguraski hutsune frango
izanen dituzte beste herrialde
batzuetan, bereziki hegoaldean, egi-
ten denarekin konparatuz. Alta,
eremu osoan hizkuntzak duen eza-
gupen eskasa eta arau ezari behatuz,
hasiera onak dira.

Biarritzeko adibidea da gehien
behatu dudana (...). Hasteko, euska-
ra buru belarri defendatzen du
duela gutxi arte euskararekin hozpi-
la zen hautetsi batek eta ez dut uste
itxurakeriatan ibilki denik, diskur-
tsoaz gain hainbat neurri bultzatzen
baititu: beraz bada euskararen per-
tzezio eta tratamenduaren aldake-
ta handia. Bigarrenik, Biarritze da
herri bat iparraldekoa zeinetan
dudarik gabe euskarak gehien egin
duen gibelera, bizkitartean, lehene-
tarik izan da hizkuntz politika bat
gauzatzen”.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz:
www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Ongizate estatua desegiten ari dira

PPren Espainiako Gobernuak pauso berria eman du langile klasearen eta
herri sektoreen kontra. Duela aste batzuk lan erreforma inposatu zuen,
kaleratze merkeagoak eta prekarietate handiagoa ezarri. Hezkuntzan
ere, kalitatean nabaritutako diren murrizketak egin ditu. Orintsu osasun-
gintzako erreforma eraman du aurrera eta kopagoa ezarri du, herritarrek
zergen bidez jadanik ordaintzen duten arren. Pentsiodunek, hemendik
aurrera, euren botiken zati bat ordaindu beharko dute, eta askorentzat
gehiegizko kostua izango da. Osasungintzako erreformaren barruan,
berandu baino lehen etorriko den hurrengo urratsa izango da medikua-
rengana joateagatik ordaindu beharra. Eta segi eta segi, murrizketekin.

PPren Gobernuak ongizate estatua desegiten jarraitzen du, Espainiako
Estatu osoko milaka langilek euren izerdiz eta borrokaz lortua. Merka-
tuen aurrean belaunikatu dira (banku handiak, inbertsio fondoak, asegu-
ruak...) eta espekulatzailerik lotsagabe zurrupatzaileek agintzen dutena
zehatz-mehatz betetzen ari dira. Euren dirua bermatzea baino ez dute
buruan, horretarako gosea, miseria eta munduan milioika lagun herio-
tza eragiten badute ere. Merkaturik politikari miserableak dituzte lagun,
haiek ohoratzen dituzte. Politikariak eta gobernuak ez dira gai alternati-
bak aurkezteko, badauden arren, eta ez dira gai politika, espekulatzailerik
zurrupatzaileen interesen gainetik jartzeko.

Euskal Herrian, gure lurraldean ere inposatu nahian ari diren politika
horiek, subiranotasun ekonomiko-politikoaren eta independentziaren
aldeko borroka handiagoa eragin behar lukete, gure herria izan dadin
politika horiek erabakitzen dituen. Zer egingo dute EAEko
eta Nafarroako administrazioek? Belaunikatu egingo dira
horiek ere? Okerrena gertatuko delakoan nago.

Juan Mari Arregi

